

"Peter Schlemihl-en istorio miresgarria"
Adelbert Von Chamisso
euskaratzailea: Anton Garikano
Ibaizabal, 1995

Benetako izena Louis Charles Adelaide de Chamisso zuen. Gurasoak 1879ko Iraultzatik ihesi Alemaniara joan ziren babes eta bizi-ziurtasunen bila. Von Chamisso jarriko zuen gero izena, Alemanian etxeko sentitzen baitzen; eta diotenez, etxean alemaniar. Erromantizismoa izan zuen heziketa sentimentalaren lurra; hantxe bota zituen erroak haren izpiritu poetikoak, haren frantses senak. Dirudienez, frantziartasuna eta alemaniarartasuna, biak bildu zituen bere baitan. Frantses hizkuntzatik apaltasuna hartu zuen bere testuentzat; alemanieratik, berriz, sakontasuna. Hala dio Waltzelek: "Erromantiko frantsesen eta ingelesen pozak kolore guztietako etxea egiten du poesia alemaniarrean, Chamissok euskaldunen, kortsikarren, Ameriketako indiarren kantak kantatzen dituenen". Euskaldunok baginela bazekien. Erromantizismoaren eragina ote?

Goetherengandik eta beste erromantiko garaikideengatik jaso zuen gai majikoetara jotzeko joera. Goetheren "Faust", ez dezagun ahaztu, jeneroko maisu-lana da. Dezente idatzi zuen Von Chamissok majikotasunaren gaiari buruz: saio liburu bat, fabula bat eta, azkenik, Peter Schlemihl-en istorio miresgarria, idazleari ospe handia ekarri ziona.

Galdera asko egin da Von Chamissok idatzitako istorioari buruz: Zer adierazten du itzalak? Gizakiaren bertuteren baten sinbolo ote dugu, ala gehiago du zerikusirik aberriaren, ohorearen, aitaren irudiekin? Erantzunak ugari. Interesgarriena, noski, idazleak berak emandakoa: "Ez dut helburu finkorik idazten ari naizen bitartean. Anekdota edo pasadizo bat burura etortzen zaidanean, ahalik eta etekinik handiena ateratzen saiatzen naiz. Behin, bidaia batean, kapela, maleta, eskularruak galdu nituen, eta orduan Fouque-k galdetu zidan, erdi txantxetan, itzala ere galdu ote nuen. Biok hasi ginen pentsatzen zer izan zitekeen halako galera. Beste behin, La Fontaineren liburu batean irakurri nuen poltsikoetatik gauza pila bat ateratzen zuen gizonaren istorioa. Horrela jaio zen nire buruan Peter Schlemihl, eta asper-asper eginda nengoen batean idazten hasi nintzen".

Azalpenak azalpen, egia da, narazio gutxik lortu dutela Von Chamissoaren honek lortu duena: istorio zoragarri bat, giza-esistentziari buruzko galdera pila bat eta, gainera, ospea. Euskaldunok haren zor ginen.